



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2019ko maiatzak 7

Vitoria-Gasteiz, 7 de mayo de 2019

Lehendakaritza

EUSKADI BASQUE COUNTRY EGUNAREN LEHEN EDIZIOA, EUSKADI-BASQUE COUNTRY HERRIALDE MARKA BULTZATZEKO URTEKO JARDUNALDIA

- **“Abangoardia maite duen antzinako herria” ekitaldiak Euskadi munduan arlo ezberdinetan sustatzen duten hogeitun inguru agente mota oro bilduko du. Nazioarteko jarduera duten edota aurreikusita duten sektore guztietako erakunde, enpresa eta pertsoneri zuzenduta dagoen jardunaldia izango da**

Datorren ekainaren 19an, “Euskadi Basque Country Egunaren” lehen edizioa egingo da Bilbon. Jardunaldia Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritzak sustatu du, eta Euskadi-Basque Country herrialde-marka garatzen laguntzen duten erakunde, agente (ekonomiko, kultural, akademiko edo sozial) eta pertsoneri zuzenduta dago. Baita nazioarteko agenda garatzen duten pertsoneri edota nazioartekotze prozesua hasteko aurreikuspena duten pertsoneri ere. Jardunaldiaren helburua bikoitza da: Euskadi marka sustatzea, horren inguruko ahaleginak batzea, eta gure mugetatik kanpo dauden pertsona eta erakundeen esperientzia azpimarragarriak partekatzea.

Xede horrekin, Iñigo Urkullu Lehendakariak inauguratuko duen Euskadi Basque Country Egunaren lehen edizio honek, “Abangoardia maite duen antzinako herria” izenburupean, hogeitun parte-hartzaile inguru bilduko ditu. Ekintzak Argentinako brandingeko aditu eta FutureBrand agentziako zuzendari Gustavo Koniszczek-ek emango duen esparru-hitzaldi bat izango du lehendabizi. Bertan, Euskadi markari eta haren ikurrei buruz egindako azterketa zabalaren emaitzak eta markak eraldaketa-tresna gisa eskaintzen dituen aukerak jakinaraziko ditu.

Ondoren, Euskadi markaren pertzepzioa hainbat esparrutatik abiatuta aztertzeke aukera egongo da hiru mahai-ingurutan.

- Lehen mahai-ingurua gizarte-kohesioari, lankidetzari eta autogobernuari buruzkoa izango da, eta Euskadik elkartasunaren arloan gure mugen barruan zein muga horietatik kanpo egiten duen jardueran eredu propio bat izateak duen eragina aztertuko da bertan. Mahai-inguruaren moderatzailea Olatz Arrieta izango da, ETBko korrespontsala Bruselan. Bertan hitz egingo dutenak, berriz, honako hauek izango dira: Global Shapers Bilbao ekimenaren koordinatzaile Estibaliz Arenzana, Fair Saturday ekimenaren bultzatzaile Jordi Alvareda, NBE beken aitzindari Felipe González (UPV-EHUkoa), eta Deustuko Unibertsitateko irakasle Leyre Arrieta.
- Bigarren mahai-inguruan, ETBko kazetari Vanessa Sánchez arituko da moderatzaile-lanetan, eta Euskadi-Basque Country herrialde-marka

aztertuko da benetakotasunaren, kulturaren eta erakarpenaren ikuspegitik. Parte hartuko dutenak honako hauek dira: Eneko Atxa sukaldaria, Boiseko Unibertsitateko itzultzaile Nere Lete, Musika Bulegoko zuzendari Miryam Miranda eta Guggenheim Bilbao museoko zuzendari Juan Ignacio Vidarte.

- Hirugarren mahai-inguruan, berriz, Euskadi-Basque Country herrialde-marka aztertuko da lehiakortasunaren, hezkuntzaren eta talentuaren ikuspegitik, eta parte hartuko dutenak honako hauek dira: CAFeko presidente Andrés Arizkorreta, DIPCKo zuzendari Ricardo Díez Muiño, BCBLko eta Ikerbasqueko ikertzaile Clara Martín, eta Amarenak-eko ekintzaile Ohiane Pardo. El Correo egunkariko kazetari Adolfo Llorente arituko da moderatzaile-lanetan.

Jardunaldian, Kirmen Uribe poetak (New Yorketik eta Ion Ander Beloki artistak ere parte hartuko dute. Haien guztien arte-ibilbideek ospe handia izan dute nazioartean. Amaiera emango dio ekitaldiari Kanpo Harremanetarako Idazkari Nagusi den Marian Elorzak. Gaur prentsaurrekoan adiera duenez “berezko balio berezietan oinarritua dagoen herrialde-marka indartsua izatea aktibo izugarria da, kanpoan balio berezia ematen duena”.

“Euskadi Basque Country Eguna”, nolana ere, nazioartekotzearen arloko ardatzak eta ildoak zehazten dituen Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020: Basque Country Estrategiaren barruan aurreikusitako ekintzetako bat da.

Enplegua eta Gizarte Politikak

EUSKADIN GAZTE BOLUNTARIOEN ZORTZI AUZOLANDEGI EGONGO DIRA, AUZOLANDEGIAK 2019 PROGRAMAREN BARRUAN

- **Euskadin, 554 pertsonak eman dute aurretik izena, eta horiek Estatuko edo Europako auzolandegietan parte hartzeko aukera izango dute**

Euskadin, aurtengo udan, gazte boluntarioen zortzi auzolandegi egongo dira, *Auzolandegiak 2019* programaren barruan; programa Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzak antolatu du. Horiek honako udalerrri hauetan izango dira: Agurain, Arraia-Maeztu, Gaubdea, Lekeitio, Sopuerta, Zamudio, Lemoa eta Bergara. Horretarako, Gobernu Kontseiluak, gaur, Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, udal horiekin lankidetzaz-hitzarmenak sinatzeko baimena eman du, Euskal Autonomia Erkidegoan auzolandegi horiek egiteko.

Auzolandegi horiek 15 eguneko txandetan banatuko dira, Lekeitiokoa izan ezik, bi txanda izango baititu, 15 eguneko bakoitza. Horietako hiru nazioarte-eremukoak izan dira eta 5 estatu-eremukoak.

Euskadiko auzolandegietan parte hartzen dutenek hainbat jardueratan parte hartuko dute, besteak beste: hezegune bat berreskuratzea Agurainen, arkeologia-indusketa egitea Maeztun, Gaubean Villamordoneseko eremua egokitzea, Sopuertan bidegorri bat gaitzea, Bergarako eta Lekeitioko egoitzetan hirugarren adineko pertsonak dinamizatzea, Lemoan lubakiak eta memoria berreskuratzea eta Zamudion ahultasun nutrizionaleko egoeran dauden pertsonen elikagaiak banatzea eta laguntzea.

Aguraingo, Gaubeako eta Lemoako auzolandegiak nazioarte-eremukoak izango dira, eta atzeritarrak izango dituzte; horien erreferentziazko hizkuntza ingelesa izango da. Gainerako auzolandegietan, Estatuko beste autonomia-erkidego batzuetako gazteek parte hartuko dute, eta erreferentziazko hizkuntzak euskara eta gaztelania izango dira.

554 euskal gaztek eman dute izena

Gazte boluntarioen Auzolandegiak programak, aurtun, babes handia izan du Euskadin; izan ere, 554 euskal gaztek eman dute aurretik izena parte hartu ahal izateko, epea amaitzean. Azkenean programan parte hartuko duten gazteek Estatuko beste autonomia-erkidego batzuetako edo Europako beste herrialde batzuetako auzolandegietan lan egin ahalko dute, beste urte batzuetan bezala. Plazen trukean, beste erkidego batzuetako 100 gaztek eta atzerriko 50 gaztek Euskadiko auzolandegietan parte hartzea aurreikusten da.

2019. urtean, plazak eskainiko dira gainerako autonomia-erkidegoetan eta atzerrian dauden auzolandegietarako. Atzerrian honako herrialde hauetan: Alemania, Armenia, Estonia, Frantzia, Grezia, India, Islandia, Italia, Letonia, Maroko, Nepal, Txekiar Errepublika, Errusia, Serbia, Taiwan eta Turkia.

Auzolandengien bidez, zenbait balio sustatzen dira, besteak beste, bizikidetza, tolerantzia, elkartasuna, parte-hartzea, kulturen arteko ikaskuntza eta abar. Programaren helburua, azken finean, hainbat jatorri eta kulturatako gazteen artean kultura-trukea eta bizikidetza bultzatzea da eta, horretarako, auzolandegiaren harrera-leku den erkidegoaren ondasunean eragina izango duen boluntariorzaren lana garatzea.

Hezkuntza

1,8 MILIO EURO LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLEEN PRESTAKUNTZARAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du Lanbide Heziketaren V. Euskal Plana gauzatzeko prozesuan eremu estrategikoak gaurkotzeko ildoak 2019-2020ko ikasturtean aurrera eramateko diru-laguntzak deitzen dituen agindua. Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuei zuzenduta daude diru-laguntza hauek.

1.817.000 euroko zenbateko globalarekin, Lanbide Heziketaren V. Euskal Planean estrategikotzat jotako eremuak aurrera eramateko jarduerak 2019-2020ko ikasturtean garatzeko itunpeko ikastetxe pribatuetako pertsonal irakaslearen erabateko liberazioaren edo liberazio partzialaren finantziazioa du deialdi honek helburu.

2019-2020ko ikasturtean erdi edo goi mailako heziketa-zikloak itunduta dituzten Euskadiko ikastegi pribatuek izango dute diru-laguntza horiek jasotzeko aukera.

Lanbide Heziketaren V. Plana

Lanbide Heziketaren V. Euskal Planak, Lanbide Heziketako euskal sistema eraldatzeko prozesuan gidari izan behar duen tresna den aldetik, ondorengo eremu estrategikoetan integratzen diren lehentasunezko helburu eta jardueraildo batzuk ezartzen ditu: berrikuntza aplikatua; 4.0 testuinguruko ikaskuntza; elkarlaneko adimena eta malgutasun eraldatzailea; berrikuntza teknologikoa eta sistema adimentsuak; garapen jasangarria; edo ikastetxe eredu berria.

Beraz, deialdi honen helburua da itunpeko ikastetxeek ere, publikoek egiten duten eran eta euren irakasleen bitartez, profesional hauen prestakuntza sendotzen duten jarduera eta proiektuetan parte hartzea, prestakuntza horren xedea izanik ikaskuntza-ingurune gero eta espezializatuagora egokitutako gaitasunak eta metodoak garatzea Lanbide Heziketako ikastetxeetan; inguruneke enpresei eman beharreko laguntzan (Enpresa Txiki eta Ertainei, bereziki) Lanbide Heziketako ikastetxeen parte hartzea sustatzea, enpresa horiei eskaintzen zaien estaldura hedatuz, era horretan; edo Lanbide Heziketatik erantzun sistematiko bat ematea behar teknologikoen aniztasunari.

Hezkuntza

300.000 EURO IKASGELETAN BALIABIDE DIGITALAK INTEGRATZEKO “SARE_HEZKUNTZA GELAN” PROIEKTURAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du Euskadin kokatutako unibertsitatez kanpoko itunpeko ikastetxeak, eta ikastetxe horiekin estatu edo arauzko harremanak dituzten elkarte eta federazioak 2019-2020ko ikasturtean Sare_Hezkuntza Gelan berriztapen-proiektuan parte hartzera deitzen dituen agindua. Aipaturiko proiektu honek ikasgeletan, irakatsi eta ikasteko prozesuan, baliabide digitalak txertatzea du helburu.

300.000 euroko zenbateko globala duen deialdi honen bidez, ikastetxeetan irakatsi eta ikasteko prozesuan material eta baliabide digitalak egiteko prozesua sustatu nahi da, bai eta material eta baliabide horiek gelan erabiltzeko eta gauzatzeko behar den prestakuntza teknologikoa eta pedagogikoa erraztea ere. 2019-2020 ikasturterako deialdi honetan, gehienez itunpeko 50 ikastetxe hautatuko dira.

Ondoren aipatzen diren ildo hauetako bat edo batzuk betetzen dituzten proiektuek jasoko dituzte deialdi honetan aurreikusten diren diru-laguntzak, eskaera egiten duen ikastetxean bertan edo federazio edo elkarten bidez parte hartzen duten beste ikastetxe batzuetan ezartzeko:

- 1) Teknologia berriak eta material eta baliabide digitalak erabiltzea, irakatsi eta ikasteko prozesuan.
- 2) Irakasleen prestakuntza teknologikoa eta pedagogikoa, material eta baliabide digitalak egiteko, eta irakatsi eta ikasteko prozesuan erabiltzeko.
- 3) Ikasgelan erabiltzeko material digitalak sortzea.

2018-2019 ikasturte honetan Euskadiko 372 ikastetxe ari dira parte hartzen orotara Sare_Hezkuntza Gelan programan, 217 ikastetxe publiko eta 155 itunpeko.

Hezkuntza

100.000 EURO HEZKIDETZA LANTZEKO ETA GENERO-INDARKERIA PREBENITZEKO PROIEKTUETARAKO

2019-2020 eta 2020-2021 ikasturteetan hezkidetza landu eta genero-indarkeria prebenitu ahal izateko jarduera-proiektuak garatu ditzaten Euskadiko Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako itunpeko ikastetxeak deitzen dituen Agindua onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran Gobernu Kontseiluak.

Gorago aipaturiko hezkuntza-etapak eskaintzeko baimendutako EAEko 50 ikastetxe (gehienez) aukeratzea du deialdi honek helburu, hezkidetzaren eta genero-indarkeria prebenitzearen arloan jarduera-proiektu bat diseina dezaten aipaturiko ikasturteetarako. Jarduera-proiektu horri esker, izango dute hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa ikastetxean era global, sistematikoan eta integratuan lantzeko aukera.

Hautatutako ikastetxe bakoitzari diru-laguntza bat emango zaio. Irakasleen nahiz eskola-komunitatearen prestakuntzarako eta proiektua koordinatu eta hedatzeko jarduerari aurre egiteko baliatuko da laguntza hori.

Jarduera-proiektuak 315 ikastetxetan

2013-2014 ikasturtean Hezkidetza eta Genero-indarkeriaren Prebentzioa lantzeko Gida-Plana abian jarri zenetik, Euskadiko 236 ikastetxe publikok eta 79 itunpekok gartu dute euren proiektua, eta aplikatzen ari dira dagoeneko arlo horietan (hezkidetzan eta genero-indarkeriaren prebentzioan).

Aipaturiko Gida-planaren helburua da, hezkuntza sisteman hezkidetza eredia bultzatzea: pertsonen garapen osoa bideratzen duen eskola eredia, sexuaren arabeko estereotipoak eta rola albo batera utzita, eta diskriminazio eta genero indarkeria mota guztien kontra eginez. Ikasketak eta lanbidea aukeratzekoan sexuaren arabera orientatzen ez duen eredia, eskola-komunitateko kide guztien parte-hartze eta laguntzarekin.

Presidencia

PRIMERA EDICIÓN DE EUSKADI BASQUE COUNTRY EGUNA, JORNADA ANUAL PARA EL IMPULSO DE LA MARCA PAÍS EUSKADI-BASQUE COUNTRY

- **El evento, bajo el título “Un pueblo ancestral que ama la vanguardia”, reunirá a una veintena de agentes que promocionan Euskadi en el mundo desde sus respectivos campos de actuación, y está dirigido a instituciones, empresas y personas de todos los sectores con actividad internacional o previsión de la misma**

El próximo 19 de junio se celebrará en el Bilbao Aretoa de Bilbao, la primera edición de “Euskadi Basque Country Eguna”, una jornada promovida por la Secretaría de Acción Exterior del Gobierno Vasco y dirigida a todas aquellas instituciones, agentes (económicos, culturales, académicos o sociales) y personas que desarrollan agenda internacional y contribuyen al desarrollo de la marca-país Euskadi-Basque Country o prevén iniciar un proceso de internacionalización. El objetivo de la jornada es doble: promover la marca Euskadi, aunando esfuerzos en torno a ella, y compartir experiencias reseñables de personas y entidades que ya se encuentran fuera de nuestras fronteras.

Con este fin, esta primera edición del Euskadi Basque Country Eguna, que será inaugurada por el Lehendakari, Iñigo Urkullu, bajo el título “Un pueblo ancestral que ama la vanguardia”, reunirá a una veintena de participantes y contará con una ponencia marco, a cargo del experto en branding argentino y director de FutureBrand, Gustavo Koniszczewski, quien dará a conocer los resultados del extensivo análisis realizado sobre la marca Euskadi y sus atributos, y las posibilidades que la marca ofrece como herramienta de transformación.

A continuación, un total de tres mesas redondas permitirán abordar la percepción de la marca Euskadi desde diferentes ámbitos.

- La primera de ellas, centrada en la cohesión social, la cooperación y el autogobierno, analizará la influencia de disponer de un modelo propio en la actividad que se realiza desde Euskadi en materia de solidaridad, dentro y fuera de nuestras fronteras. Moderada por la corresponsal de ETB en Bruselas, Olatz Arrieta, la conversación contará con Estíbaliz Arenzana, responsable de Global Sharpers Bilbao; el impulsor de Fair Saturday, Jordi Alvareda; el precursor de las becas ONU, Felipe González, de UPV-EHU; y la profesora de la Universidad de Deusto, Leyre Arrieta.
- La segunda mesa redonda, moderada por la periodista de ETB, Vanessa Sánchez, analizará la marca país Euskadi Basque Country desde la

perspectiva de la autenticidad, cultura y atracción, y contará para ello con la participación del cocinero Eneko Atxa; la traductora de la Universidad de Boise, Nere Lete; la directora de Musika Bulegoa, Miryam Miranda; y el director del museo Guggenheim Bilbao, Juan Ignacio Vidarte.

- La tercera y última mesa redonda analizará la marca país Euskadi Basque Country desde el prisma de la competitividad, la educación y el talento y contará con la presencia de Andrés Arizkorreta presidente de CAF, Ricardo Díez Muiño, Director de DIPC, Clara Martín, investigadora de BCBL e Ikerbasque, y la emprendedora, Ohiane Pardo, de Amarenak. La conversación será conducida por el periodista de El Correo, Adolfo Llorente.

Intervendrán también en la jornada el poeta Kirmen Uribe, desde Nueva York, y el artista Ion Ander Beloki, todos ellos con trayectorias artísticas reconocidas a nivel internacional, y dará cierre al evento la Secretaria General de Acción Exterior del Gobierno Vasco, Marian Elorza, quien ha afirmado hoy en rueda de prensa que “contar con una marca país fuerte, asentada en valores singulares que nos son propios es un enorme activo, confiere un valor diferenciado en el exterior”.

La jornada “Euskadi Basque Country Eguna” es una de las acciones previstas en la Estrategia Marco de Internacionalización 2020, Estrategia Basque Country, que define los ejes y líneas de trabajo en materia de internacionalización. Se organizará con periodicidad anual y su localización irá rotando entre Bilbao, Donostia-San Sebastián y Vitoria-Gasteiz.

Empleo y Políticas Sociales

EUSKADI ACOGERÁ OCHO CAMPOS DE VOLUNTARIADO JUVENIL DENTRO DEL PROGRAMA AUZOLANDEGIAK 2019

- **En Euskadi son 554 las personas preinscritas, que tendrán la opción de participar en campos estatales o europeos**

Euskadi acogerá este verano ocho Campos de Voluntariado Juvenil dentro del programa *Auzolandegiak 2019*, organizado por la Dirección de Juventud del Gobierno Vasco. Estos se ubicarán en Agurain, Arraia-Maeztu, Valdegovía, Lekeitio, Sopuerta, Zamudio, Lemoa y Bergara. Para ello, el Consejo de Gobierno ha autorizado hoy, a propuesta de la Consejera de Empleo y Políticas Sociales, Beatriz Artolazabal, la próxima suscripción de convenios de cooperación con dichos ayuntamientos, de cara a la celebración de estos campos de trabajo en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Todos estos campos de trabajo tendrán de un turno de 15 días de duración, a excepción del campo de Lekeitio que constará de dos turnos de 15 días cada uno. Tres de ellos serán de ámbito internacional y 5 de ámbito estatal.

Las personas participantes en los campos de Euskadi tomarán parte en actividades tan dispares como la recuperación de un humedal en Agurain, una excavación arqueológica en Maeztu, el acondicionamiento del despoblado de Villamordones en Valdegovía, la habilitación de un bidegorri en Sopuerta, dinamización de personas de la tercera edad en las residencias de Bergara y Lekeitio, la recuperación de trincheras y memoria histórica en Lemoa, así como el reparto de alimentos y acompañamiento a personas en situación de vulnerabilidad nutricional en Zamudio.

Los campos de Agurain, Valdegovía y Lemoa serán de ámbito internacional y contarán con la presencia de personas extranjeras, siendo su idioma referencial el inglés. En el resto de campos participarán jóvenes de otras comunidades autónomas estatales y tendrán como idiomas referenciales el euskera y castellano.

554 jóvenes vascos inscritos

El programa Auzolandegiak de Campos de Voluntariado Juvenil ha obtenido de nuevo este año un gran respaldo en Euskadi, ya que 554 jóvenes vascos y vascas se han preinscrito para poder participar, una vez concluido el plazo. Las y los jóvenes que finalmente formen parte del programa tendrán la oportunidad también de trabajar en campos ubicados en otras comunidades autónomas del Estado o en otros países europeos, como otros años.

De hecho, en el intercambio de plazas se prevé la participación de 100 jóvenes de otras comunidades y 50 jóvenes del extranjero en los campos de voluntariado de Euskadi.

Este 2019 se ofrecen plazas en campos de voluntariado ubicados en el resto de comunidades autónomas y en el extranjero en países como Alemania, Armenia, Estonia, Francia, Grecia, India, Islandia, Italia, Letonia, Marruecos, Nepal, República Checa, Rusia, Serbia, Taiwán y Turquía.

Los Auzolandengiak sirven para fomentar valores como la convivencia, la tolerancia, la solidaridad, la participación, el aprendizaje intercultural, etc. Y es que el objetivo del programa es facilitar el intercambio cultural y la convivencia entre jóvenes de distintas procedencias y culturas a través del desarrollo de un trabajo de voluntariado que repercute en el bien de la comunidad que acoge el campo.

Educación

1,8 MILLONES DE EUROS PARA LA FORMACIÓN DE PROFESORADO DE FP

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta de la Consejera de Educación, una Orden por la que se convocan subvenciones para el desarrollo, en el curso escolar 2019-2020, de las líneas de actuación de los ámbitos definidos como estratégicos en el V Plan Vasco de la Formación Profesional, dirigidas a los centros privados concertados que imparten ciclos formativos de Formación Profesional.

Con un importe global de 1.817.000 euros, esta convocatoria tiene por objeto la financiación de la liberación total o parcial de personal docente de los centros privados concertados para el desarrollo, en el curso académico 2019-2020, de las actividades de despliegue de los ámbitos definidos como estratégicos en el V Plan Vasco de Formación Profesional.

Podrán acogerse a estas subvenciones los centros privados de Euskadi que, en el curso académico 2019-2020, tengan concertados ciclos formativos de grado medio o de grado superior.

V Plan Vasco de FP

El V Plan Vasco de Formación Profesional, como instrumento que debe guiar las transformaciones del Sistema Vasco de Formación Profesional, establece una serie de objetivos y líneas de actuación prioritarias integradas en los siguientes ámbitos estratégicos: la innovación aplicada; el aprendizaje en el contexto 4.0; la inteligencia colaborativa y la flexibilidad transformadora; la innovación tecnológica y los sistemas inteligentes; el desarrollo sostenible; o un nuevo modelo de centros de Formación Profesional.

Por tanto, el objetivo de esta convocatoria es que los centros concertados, al igual que hacen los públicos, participen a través de su profesorado en actividades y proyectos que refuercen las competencias de estos profesionales, dirigidas a dar respuesta a entornos tecnológicamente muy avanzados; que fomenten la participación de la Formación Profesional en el apoyo a empresas, en especial a pymes, y consigan ampliar la cobertura ofrecida a las mismas; o que generen desde la Formación Profesional una respuesta sistemática a la diversidad de necesidades tecnológicas.

Educación

300.000 EUROS PARA EL PROGRAMA "SARE_HEZKUNTZA GELAN" DE INTEGRACIÓN DE RECURSOS DIGITALES EN EL AULA

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta de la consejera de Educación, la Orden por la que se convoca a los centros docentes de educación no universitaria de la red concertada, así como a las asociaciones y federaciones con relaciones estatutarias o reglamentarias con los citados centros, a participar en el proyecto de innovación para la enseñanza y aprendizaje con recursos digitales, programa "Sare_Hezkuntza Gelan", durante el curso 2019-2020.

Esta Orden, por un importe global de 300.000 euros, tiene como finalidad impulsar la elaboración de materiales y recursos digitales en el proceso de enseñanza-aprendizaje, su utilización en el aula, así como facilitar la formación tecnológica y pedagógica necesaria para llevarlo a cabo. Serán seleccionados un máximo de 50 centros docentes concertados mediante esta convocatoria para el curso 2019-2020.

Será objeto de las ayudas económicas previstas en esta convocatoria la elaboración de un proyecto, para su implantación en el centro educativo solicitante, o en los centros asociados que participan a través de las federaciones o asociaciones, que aborde una o varias de las siguientes líneas:

- 1) la utilización de las nuevas tecnologías y materiales y recursos digitales para el proceso de enseñanza-aprendizaje.
- 2) la formación tecnológica y pedagógica del profesorado para la utilización y elaboración de materiales y recursos digitales en el proceso de enseñanza-aprendizaje.
- 3) la creación de material digital para su utilización en el aula.

Durante este curso 2018-2019 un total de 372 centros educativos de Euskadi participan en el programa "Sare_Hezkuntza Gelan". De entre ellos, 217 son centros públicos y 155 concertados.

Educación

100.000 EUROS PARA PROYECTOS DE COEDUCACIÓN Y PREVENCIÓN DE LA VIOLENCIA DE GÉNERO

El Consejo de Gobierno, a propuesta de la Consejera de Educación, ha aprobado, en su reunión de hoy, la Orden por la que se convoca a los centros concertados de Educación Infantil, Educación Primaria y Educación Secundaria de Euskadi, para solicitar la realización de proyectos de actuación que les permita abordar la coeducación y la prevención de la violencia de género durante los cursos 2019-2020 y 2020-2021.

El objeto de esta convocatoria es el seleccionar un máximo de 50 centros concertados de Euskadi autorizados a impartir las etapas educativas anteriormente citadas para que diseñen un proyecto de actuación en el ámbito de la coeducación y la prevención de la violencia de género que abarque los citados cursos; este proyecto les permitirá abordar la coeducación y la prevención de la violencia de género de manera global, sistemática e integrada en su centro educativo.

A cada centro seleccionado se le hará una asignación económica para hacer frente a actividades formativas del profesorado, de la comunidad escolar y actuaciones de coordinación y de difusión del proyecto.

315 centros con proyecto de actuación

Desde la puesta en marcha del Plan Director para la Coeducación y la Prevención de la Violencia de Género en el curso 2013-2014, un total de 236 centros públicos y 79 concertados de Euskadi han desarrollado y aplican ya sus proyectos de actuación en estas materias (coeducación y prevención de la violencia de género).

El citado Plan Director impulsa un modelo coeducativo de escuela, basado en el desarrollo integral de las personas al margen de los estereotipos y roles en función del sexo. Un modelo de escuela que eduque en el rechazo a toda forma de discriminación y de violencia sexista, y que posibilite una orientación académica y profesional sin sesgo de género. Busca para ello contar con la participación y la implicación de todas las personas de la comunidad educativa.